

Larry Trask gogoan



Euskaltzaindia

Euskal Ikasketen komunitatea lutoan dago. Andolin Eguzkitza hil eta egun batzuetara Larry Trask euskalaria (New York, 1944 – Ingalaterra, 2004) hil zen. Trask irakaslea ohorezko euskaltzaina zen 2002az gero. Kimika ikasketak egin zituen eta gero irakasle jardun zuen. 1970etik aurrera, hizkuntzalaritzari ekin zion, batez ere euskararen aztertzeari.

Doktorego tesia egin behar eta euskara hartu zuen aztergai. Westminster eta Sussex unibertsitateetako irakasle izan zen. Euskarazko ikasketak munduan zabalitzen saiatu zen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo: www.cogs.susx.ac.uk/users/la_ryt helbidera.

AISA: euskara eta etorkinak



Helduen euskalduntze-alfabetatzearen ikuspegitik, etorkinena alor estrategikoa dugu eta datozen urteetan garapen nabaria ezagutuko du. Hori gogoan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Planaren bidetik, AISA, etorkinei zuzendutako euskara ikasteko ikasmateriala aurkeztu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta HABEK. AISA, euskara ikasteko oinarri-oinarrizko materiala da, Euskal Herrira iristen diren etorkinentzako harrera-ikastaroetan erabiltzeko. Ikastaro horiek 60 ordukoak izango dira eta, ondoren, ikasleek euskaltegi-ko ohiko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute.

Ikasmateriala lau liburutan jasota dago eta irakasleentzako liburuxkak HABEK irakasleentzako duen web gunean daude eskura (www.irakaslea.habe.org).

Ikasmaterialak, gainera, irudizko hiztegia eskaintzen du zazpi hizkuntzatan: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, arabiera, berberera eta txinera.

Amarauna egitasmoa



Proiektu berria jarri du abian UNESCO Etxeak Kultura Sailaren laguntzaz: Hizkuntzen AMARAUNA. Egitasmoak UNESCOrentzat eginiko Munduko Hizkuntzei buruzko Txostena du oinarri eta bertan, besteak beste, adierazten da hizkuntza-aniztasuna galtzen ari dela mundu osoan zehar. Joera hori itzularazteko ezinbestekoa da ahalik eta nazioarteko elkarlan handiena egitea.

Lau urtean lan egin eta 700 hizkuntzari buruzko informazioa jaso da. AMARAUNAREN asmoa da, orain, hizkuntza horien, eta gehiagoren, datuak jakinaraztea, Interneteko web gune berri baten bitartez eta <http://amarau-na-languages.com> helbidean.

Bertan, oraingoz, 525 hizkuntzari buruzko datu soziolinguistikoak ageri dira: ofizialtasunari buruzko egoera; administrazioan, irakaskuntzan eta hedabideetan duten presentzia; transmisioari eta erabilerari buruzko datuak, eta beste.

Jardunaldi Pedagogikoak



XI. Jardunaldi Pedagogikoak egin zituen Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak martxoaren 10etik 12ra, Gasteizen. Bigarren urtez, ahazkotasunari buruzko gogoeta egin dute hainbat irakaslek, zenbait adituren laguntzaz. Parte hartzaileek adierazi dutenez, ahazkotasuna lantzeko nahitaezko da "hezikuntza proiektu koherentea izatea ez ezik, gela barruan metodologia egokia ere baliatzea". Horren arabera, "hitz egiteko aukerak ugalduta eta hitz egiteko heldulekuak eskaini behar zaizkie ikasleei".

Kultura Sailak diruz lagundutako jardunaldien ondorio eta hitzaldi nagusien laburpena, www.ikastola.net gunean.



Pertsonen eta herrien eskubideak ardatz hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak *Geure hizkuntzan bizitzeko eskubidea* izeneko kanpaina zabaldu berri du.



Euskara lanean bultzatzeko ekimen berriak ari dira argitaratzen. Horren lekuko da Fagor altzari-lantegiko euskara batzordeak berriki kaleratu duen hiztegia. Ildo beretik, aurrekoarekin batera, *Ekin* hiztegia ere. Helburua, berriz, bat bera da bietan: eguneroko lanean euskara erabiltzea.



Euskal Kultur Erakundeak biltzar nagusia egin zuen apirillean Kanbon. Biltzarrean erabaki zenez, arteen itzulpen gintza indartuko du EKE-k, udalei lagutzeko. Izan ere, Euskal Konfederazioak bultzatutako "Euskara Herriko Etxeetan" kanpainaren ondorioz, gero eta gehiago dira euskarazko itzulpenak eskatzen dituzten udalak.



Aisia Biziz izeneko hiruhilabetekaria sortu du Urtxintxa Eskolak. Astialdiaren inguruan euskaraz kaleratzen den lehen aldizkaria da eta elkartearen asmoa da arloan lanean ari direnen iritziaz, esperientziak, prestakuntza eta gogoetak zabaltzea. Gizarte sektore guztietara iristea dute jomuga: guraso, hezitzaile, ikasle, irakasle edo teknikari. Ondorioz, ludoketa, haur txoko, gazte leku, kultur etxe, euskaltegi, ikastetxe eta bestetara zabaldu nahi dute aldizkaria.

Harremanetarako, jo 943270033 telefonora.



Zaldi: Ero

Jose Luis Lizundia euskaltzainak (Iruñea, 1938) sarrera-hitzaldia egingo du uztailaren 23an Abadiñon. Lizundia euskaltzain oso izendatu zuen Euskaltzaindiak iazko maiatzean,

Jose Mari Satrustegik utzitako lekua betetzeko. Euskaltzaindiaren idazkari-kudeatzaile da aspaldi eta Onomastika batzordeko kide. Eusko Legebiltzarreko parlamentari ohi, Euskararen Normalizazio Legea (1982) idatzi zuen batzordeko kide izan zen. Euskararen Aholku Batzordeko partaide izan zen (2000-2002). Gaur egun, EABko Toponimia batzordeko kide da. Hainbat artikulu eta hitzaldi idatzi ditu, euskararen eta euskal kulturaren alderdi desberdinei buruz.

EGAN

30 aldizkari dira dagoeneko Susa etxeak HPSren laguntzari esker Ibiñaga-beitia proiektuaren barruan digitalizatu dituen aldizkariak. Proiektua literatur aldizkarien gordailu osatzea da, izan, eta, *Olerti* eta *Egan* aldizkariak izan dira orain arte sarean jarritako azkenak. Horrela, euskal literaturan garrantzi handia izan arren eskuratzea zail ziren aldizkariak (*Gernika*, *Euzko-Gogoa*, *Pott...*) edonoren esku dira www.armiarma.com helbidean.

Soziolinguistika Klusterra sortu da, euskararen berreskurapena eta normalizatorako soziolinguistika ezagutza garatzeko helburuarekin. Hausnarketa estrategikoa egingo du lehenengo eta, ondoren, arloko eragileei aurkeztuko die gogoeta. Irailetik aurrera proiektuak lantzen hasiko dira. Iñaki Martinez de Luna izango da klusterraren lehendakaria.



Boga, euskara Internet bidez ikasteko metodoa abiarazi du HABEk, etxetik mugitu gabe euskara ikasteko. Metodoaz baliatze

ko, ordenadorea eta Internetarako konexioa behar dira eta, gainera, nahitaezkoa da euskaltegi batean izena ematea. Euskalduntze prozesu osoa hartzen du metodo honek bere baitan eta bost ikastarotan zatiturik dago. Aurten Bai Fundazioak egin du *Boga* metodoa.

Informazio gehiago, www.habe.org helbidean, edo hurbileneko euskaltegian.



Lekeitioko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak liburu bat argitaratu dute Resurreccion Maria Azkue handiaren gainean. Besteren artean, idazle izan zen Azkue, eta euskal kulturak izan duen pertsona gorenetakoa. Argitara den liburuan Azkueren lanaren alderdiak lantzen dituzte Jose Antonio Arana Martija, Patri Urkizu, Ana Toledo, Natalie Morel eta beste zenbait adituk. 2001ean, Azkueren heriotzaren 50. urteurrena ospatzeko egin zen omenaldian aurkeztu zituzten adituok bere gogoetak.

Resurreccion Maria Azkueren bizitza eta lanen berri izateko jo [Bidegileak](http://www.euskadi.net/euskara) bildumara (www.euskadi.net/euskara).




ACNURek euskaratu berri du bere aldizkari ofiziala, *Errefuxiatuak* izeneko. Nazio Batuek errefuxiatuentzat duen agintziak Genevan egiten du aldizkaria eta hainbat hizkuntzataraz itzultzen. Orain, euskaraz eman dute argitara aldizkaria. Aldizkariaren 2.500 ale kaleratu dituzte bateko erakunde eta beste elkarteetan, eta harpidetza orri bat ere banatu dute, etxean jaso nahi dutenek eskaria egiteko.



Interneten da *Berria*-ren hemeroteca. Joan den ekainaren 21etik aurrera paperean argitaratutako eduki gehienak jarri dituzte www.berria.info web gunean.

EUSKARAREN BERRIPAPERA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskal Herriko III. Soziolinguistikako Inkesta* jaso diren emaitza nagusiak laburbiltzen dituen posterra kaleratu, eta luze eta zabal banatu berri du. Helburua euskararen egoeraren erretratu orokorra modu ulerterrazean egitea izan da. Horretarako, lau aldagai nagusiak (hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-bilakaera, galera-irabaziak eta euskararen erabilera) mapen gainean irudikatu dira. Euskararen egoeran sakondu nahi izanez gero, www.euskadi.net/euskara webean III. Soziolinguistikako Inkestaren lan osoa dago eskura.



Basque Sociolinguistics izeneko ikastaroa eratu berri du Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketetarako Zentroak. Honek Internet bidezko eskolak eskaintzen dizkie ikasleei, Estibalitz Amorrortu irakasleak prestatu eta zuzentzen duen ikastaroaren bidez. Zentroak ikastaroari dagokion liburu ere eman du argitara.



Alfontso Irigoien zenaren bibliotekaren eta artxibo pertsonalaren jabe egin da Bizkaiko Foru Aldundia. Euskaltzainaren liburutegiak 3.685 ale ditu. Alfontso Irigoien biografiaren berri nahi izanez gero, jo Bidegileak bildumara, www.euskadi.net/euskara Interneteko helbidean.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritzak web gune berria abiarazi du: www.gipuzkoa.net. Bertan, Gipuzkoan euskarari buruz sortzen diren albiste, jarduera eta laguntzak bilduko dituzte.

Enpresa mundurako aplikazioak euskaraz



Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Euskadi Informazio Gizartean Plana izenekoek finkatutako lehentasunetan "enpresa-mundurako aplikazioak euskarara lokalizatzea" agertzen da. Horrela, mySAP.com sistema informatikoaren hainbat modulu euskaratu dira SAP AG enpresarekin batera. Lehenengo, ezarpen-mailarik altueneko moduluak euskaratu dira, hau da, 4.6 C bertsioko hauek: Finantzarioa (FI/CO); Oinarrizko Diruzaintza (TR); Aktiboen Kudeaketa (IM); Materialen Kudeaketa (MM) eta Workflow.

Euskarara lokalizatutako aplikazio hauek CD batean konpilatu dira eta SAP teknologia erabiltzen duten enpresei eskainiko zaizkie, doan. Horrez gain, honako helbide honetatik ere deskarga daiteke softwarea: www.euskadi.net/euskara_soft

Abian dira 2004ko diru-laguntzak



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere ardurapekoak dituen esparru desberdinetan 9.280.858 euro (= 1.544.204.839 pta) erabiliko du aurtengoan. Hona hemen esparru horietako bakoitzean izango diren diru-baliabideak:

- euskalgintza alorreko ekimenek (aisialdia, jostailuak, jokoak, irakurzaletasuna, euskara eta etorkinak, hizkuntza paisaia, euskararen ondarea, omenaldiak, ...). 1.001.518,00 euro jasoko dute.
- 3.793.444,00 euro erabiliko dira euskara hedabideetan (egunkariak, aldizkariak, irratiak eta telebistak) sartzen laguntzeko.

- 900.000,00 euro, teknologia berrietan.
- 1.742.935,00 euro banatuko dira toki-entitateetako EBPN edota entitate barruko erabilera-planak egiteko.
- 580.842,00 euro, udaletako euskara-planetan lanean ari diren udal euskaltegietako irakasleen partaidetza diruz laguntzeko.
- 961.619,00 euro, entitate pribatuen eskutik egin beharreko euskara planen garapena (itzulpenak, langile erdaldunen euskalduntzea; langile euskaldunen alfabetatzea eta trebakuntza, softwarea, ...) ziurtatzeko erabiliko dira.
- 300.500,00 euro, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo euskararen eremu geografikoan euskara sustatu eta garatzekoak diren egitasmoak laguntzeko izango dira.

Horietako batzuei dagokien deialdia kalean da dagoneko. Gainontzekoak berandu baino lehen argitaratuko dira. Ohikoa denez, jakinararen gainean jarriko dira aurreko ekitaldietan deialdietara jo dutenak. Nolanahi ere, ikus www.euskadi.net/euskara.

Egonaldiak Familia Euskaldunetan 2004



Abian da euskara familia euskaldunetan ikas-teko programa. Udan euskara ikasleren bat etxean hartu nahi duten familia euskaldunek martxoaren 15etik apirilaren 18ra eman dute izena. Ikasleek geroago egingo dute izen-ematea (maiatzaren 3tik 31ra). Euskara ikasi edo hobetu nahi duten ikasleek udan -uztailetik irailera-, euskal giroan murgiltzeko modua izango dute programa honen bidez. Ulibarri eta Urrats euskaltegiak dira antolatzaile eta, HABE, berriz, sustatzaile.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta:

